

{ koaderno } Iker Barandiaran

Mutu

GARA proiektuaren izenaren berri lehen-dabiziko aldiz Anoetako belodromoan izan nuen. “Egin” egunkariaren eta Egin Irratiaren itxiera bortitzaren ostean eta etenik baimendu ez zuen “Euskadi Información”-en ostean proiektu komunikati-bo berria babesteko eta aurkezteko egin zen elkarta-sunezko kontzertu erraldoian.

Ez daukat gogoan osotasunean zein musika taldek osatu zuten kartel hura; bai, ordea, aurkezpen histo-riko hartan parte hartu zuten binakako bi proiektu: Ruper Ordorika eta Evaristo batetik; eta Enrique Mo-rente eta Lagartija Nick, bestetik. Herri berdinean bizi arren ezinezkoa izango da ia bi euskal abeslariok agertokian elkarrekin berriro ikustea, eta beraiek ere harro baino harrituta gogoratuko dute kultura arteko pasarte bitxi hura. Ez dakit nork konbentzituko zi-tuen; badakigu, ordea, zerk bultzatu zituen. “Egin”-en itxieraren aurrean ez zu-ten erantzun gabe, mutu, gelditu nahi, eta biak eza-gututa –zein baino zein– inork espero ez zuena egi-tera ausartu ziren.

Beste sorpresa itzela Mo-rente kantaoreak eta Lagar-tija Nick rock alternatiboko talde ikurrak eskaini zuten; biak Granadatik Euskal Herrira emanaldia egitera es-presuki etorriak –garai hartan!– eta biak oso esangura sakona eta injustizia irudikatzen zituen “Omega” lan sentikor bezain erraldoia aurkezten. Beraien jatorri geografiko eta kulturala dena izanik, harrigarria gu-txienez eta, jakina, txalogarria izan zen erabat bertan parte hartu izana; are gehiago, Europa erdian proiektu komunikatibo bat ixteak erakundeen aldetik jaso zuen salaketa eskasa ikusita. Andaluziako musikari horien atxikimendu keinu handi hark eta haien erraietako (Morente munstroa zen) proposamen bortitzak ere mutu utzi zuen Anoeta. Kultura arteko arte-lana gurera ekarrita, Federico Garcia Lorca, Cohen,

“Gernika”, Munchen oihua eta deiadar bakarra: adie-razpen askatasuna.

Handik gutxira, GARA eratu eta ibiltzen hasi zen. Ilusioak bor-bor egin zuen jario, sendo hasi zuen bere ibilbidea, milaka herritarren babes eta bultzadarekin. Eta, ondorioz, mutu gelditu ziren Espainiako Estatua eta nazioarteko komunitatea jakin zutenean mundu-ko herrialde txiki batean herritar ugari botere taldee-tatik kanpo dagoen proiektu komunikatibo bat eraiki-tzeko gai izan zirela beste behin ere. Mutu, halako proiektuak leku gutxitan eraikitzen direlako mun-duan, bakarrenean agian.

Jakin badakigu GARA ez dela inoiz izan “Egin” izan zena. Ez zitzaion tokatzen hala izatea. Behar zuen al-datu eta garatu. Gainera, proiektu berri honek ere aterkipeko garai oso ilunak ere bizi izan ditu eta ditu.

GARA eratu eta ibiltzen hasi zen. Ilusioak bor-bor egin zuen jario, sendo hasi zuen bere ibilbidea, milaka herritarren babes eta bultzadarekin. Eta, ondorioz, mutu gelditu zen Espainiako Estatua

Lizarra-Garaziren ondorengo garaia: Euskal Herria bat-batean igaro zen itxaropen argia piztu zuen bata-sun lorpen amankomun batetik, kriminalizazio eta errepresio garai hedatuenetako batera. Ezker abertzalekoa zen oro sar zitekeen zaku berean, eta guztia ze-goen begi-puntuan. Eta GARA ere bai, jakina.

Orain ere garai berri bat bizitzen ari gara, baina, kontrara, kriminalizazioak eta adierazpen askatasu-naren kontrako jazarpenak indarrean jarraitzen dute muturrean; eta hori bera erakutsi du GARA itotzeko kolpe berri honek. Bada, utz ditzagun mutu berriro, elkartasunetik eta hainbeste gutxien duten kultura artekotasunetik gure ahotsa berreraikiz. •